

EUSKARAREN EGUNA

EGITARAUA:

HH:

- **Goizean: 09:30** abesti emanaldia egingo da patioan. Maila bakoitzak aukeratutako abestia abestuko du (HH3-HH4-HH5) eta, bukaeran, denok elkarrekin, ahoa bizi, belarria prest dantza egingo dute.

- **Egunean zehar:**

-“Ahoa” eta “Belarria” koloreztetatu eta etxera eramango dituzte (HH2, 3 eta 4 urtekoak).

-HH-5 urtekoek lema landuko dute: EUSKARA BIHOTZETIK EZPAINETARA.

LH 1.ZIKLOA:

- **Goizean zehar:**

LH1: Euskaraz hitz egiten lagunduko dien panpin bat aurkeztuko zaie eta egun horretan erronka bat izango dute. Ur botila bat urez betetzea. Zenbat eta euskara gehiago hitz egin botila gehiago beteko da. Lortzen badute, euskarazko pelikula bat ikusteko aukera izango dute. Argitxoren marrazkia ere emango zaie margotzeko.

LH2: gela apainduko dute “EUSKARAZ BIZI NAHI DUT” esaldia idatziz leihoetan.

Aho bizi eta belarri prest margotuko dituzte eta beraien abestia entzun eta dantzatuko dute. Denbora ematen badu, web orrialde honetako jokuren batean jolastuko dira.

<https://gozatusareaneuskaraz.eus/eu/aisialdia>

10:00: abesti emanaldia egingo da patioan. Maila bakoitzak aukeratutako abestia abestuko du.

- **Arratsaldean:** jolasak edo euskarazko film bat ikusi.

LH 2.ZIKLOA:

- **Goizean zehar:**

LH3: hitza pasa jolasa prestatuko dute beste gelakoentzat.

LH4: hitz gurutzatuak prestatuko dituzte beste gelakoentzat.

11:30: abesti emanaldia egingo da patioan. Maila bakoitzak aukeratutako abestia abestuko du.

- **Arratsaldean:**

LH3: hitza pasa jolasa egingo dute.

LH4: hitz gurutzatuen jolasa egingo dute

LH3 eta LH4: hormairudiak egingo dituzte geletan jartzeko eta "denborapasak" egingo dituzte ere.

LH 3.ZIKLOA:

- **Goizean zehar:** hitza pasa jolasa prestatuko dute beste gelakoentzat eta hormairudiak egingo dituzte geletan jartzeko.

12:00: abesti emanaldia egingo da patioan. Maila bakoitzak aukeratutako abestia abestuko du

- **Arratsaldean:** LH5 eta LH6: hitza pasa jolasa egingo dute.

LH6: herri kirolak egingo dituzte.